

OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2023ICGO0015

Eguna: 2023-12-20

Ordua: 9:30 – 9:45

Tokia: alkatetza

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez MartinezAstigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden OteroAstigarragako EH Bildu

Bertaratu ez direnak

- Maria Otaegi VelezAstigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez PerezUdal talde euskal sozialistak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

- 1.- 2023ko azaroaren 28ko akta onartzea .
- 2.- Herri-bideen Udal inbentarioko 3. bidearen zati bat hobetzeko lanen memoria balioztua.
- 3.- Herri-bideen Udal inbentarioko 3. bidearen zati bat hobetzeko lanen kontratazio espedientea.
- 4.- Goiko Iturri eremuan igogailu bat jartzeko kontratazio espedientea.
- 5.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko
- 6.-Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SA (EJIE)ren eta Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, Kzgunea zentroaren irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzeko, KZ Ciudadan@ programaren esparruan.
- 7.- Informazio, galdera eta eskariak.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2023ko azaroaren 28ko akta onartzea

Akta aho batez onartu da.

2. . Herri-bideen Udal inbentarioko 3. bidearen zati bat hobetzeko lanen memoria balioztua

Alkateak azaldu du Udalak herri-bideen egoeraren inguruko azterketa egina duela, eta horiek piskanaka konpontzen daudela. Ondoren herri-bide honetan egin beharreko obraren nondik norakoak azaldu ditu, eta obrak eta zerbitzuak batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Bakarra.- Onartzea udal inbentarioko 3. bidea, Lagatsaga eta Olabide baserrien tartea hobetzeko lanei dagokion memoria balioztatua,

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

3. Herri-bideen Udal inbentarioko 3. bidearen zati bat hobetzeko lanen kontratazio espedientea.

Alkateak ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Obra-kontratu honetarako prestatu diren baldintza plegu administratiboak onartzea.

Bigarrena.- Kontratazio espedientea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.

Hirugarrena.- Esleipena 2024ko ekitaldirako udal-aurrekontuaren behin betiko onespena eteteko baldintzaren pean jartzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

4.-Goiko Iturri eremuan igogailu bat jartzeko kontratazio espedientea

Alkateak ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Obra-kontratu honetarako prestatu diren baldintza plegu administratiboak onartzea.

Bigarrena.- Kontratazio espedientea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.

Hirugarrena.- Esleipena 2024ko ekitaldirako udal-aurrekontuaren behin betiko onespena eteteko baldintzaren pean jartzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

5.-Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko

Alkateak azaldu du hitzarmena 2022an sinatu zela eta luzatzeko aukera dagoela, Aldundiak horren inguruko akordioa hartu duela eta udalak ere hartu behar duela. Ondoren, Gizarte Zerbitzuak eta adineko pertsonen batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko, 2022ko maiatzaren 23an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Udalak sinatutako lankidetzaren hitzarmena urtebetez luzatzea (2024ko abenduaren 31a arte), hitzarmenaren 14. klausulari jarraiki.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea akordioa gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko.

Hirugarrena.- Akordioaren berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari eta udal kontuhartzaitzari.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

6.-Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SA (EJIE)ren eta Udalaren arteko lankidetzahitzarmena, Kzgunea zentroaren irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzeko, KZ Ciudadan@ programaren esparruan.

Alkateak azaldu du Kzgunea martxan jartzeko bai eta horren erabilera arautzeko EJIErekin lankidetzahitzarmen bat sinatu behar dela. Gaineratu du hitzarmen horren testua bidali dutela, baina akats batzuk dituela (eranskinean gaizki azaltzen da kokapena, 1. xedapena gaizki dago eta ez du gauza bera jartzen bi hizkuntzetan...) eta horiek zuzentzeko eskatu dela, baina oraindik ez dela erantzunik jaso.

Hori horrela erabaki da lankidetzahitzarmenaren onarpena mahai gainean uztea, EJIEk testuan Udalak eskatutako aldaketak egin arte.

7.- Informazio, galdera eta eskariak.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko abenduaren 20an

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria